

Nerea Fillat, Katakarak proiektuko kidea

«Hau ezin da izan aldaketa politikoak ekarri behar zuen guztia»

Nerea Fillat iruindarra aktibista da. Kontraboterea, feminismoa, elikadura burujabetza eta eraldaketa soziala moduko kontzeptuak egunerokoan tresna eraginkor eta emankor bihurtze aldera lanean dihardu.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Non daude zure pentsaera politikoaren lehen oinarriak?

Nire bizitza baldintzatu duen elementu oso garrantzitsua izan da ikastolan ikasi izana, 80ko hamarkadan Iruñean ikastolen inguruan egon zen mugimendu horretako partaide izatea. Eszenatoki politikoan, horrelako gauzek sakonki baldintzatzen zaituzte, hiriko mapan hizkuntzaren afera garrantzitsua denean. Oso eraginkorra izan zen guregan, ez soilik hizkuntzarenatik, baita garai hartan ikastolek zuten zentzu komunitarioarenatik ere. Ideia komunitario horri zentralitatea eman nahi izan diot nire bizitza osoan.

Zure ikasketak eta lehen lanak harri zaharren artean kokatzen dira?

Historia ikasi nuen eta historiaurrean espezializatu Nafarroako Unibertsitatean eta Madrilgo Complutensen. Arkeologia maite dut eta arkeologo lanean aritu nintzen hainbat urtez. Espainiako higiezin burbuilaren garaia zen orduan eta egin ziren hainbat eta hainbat lan publikoren ondorioz, arkeologoen

lan pila izan genuen. Ikasi eta berehala hasi ginen lanean, krisia iritsi arte.

Asko sufritu behar izan zenuen ondare suntsipenarengatik?

Gazteluko Plazako aparkalekua bezalako afera gogorretan ez nintzen aritu, baina Iruñea eta Logroño lotzen dituen Bideko Autobidean adibidez bai, eta Lizarra aldean aztarnategi asko daude. Oso metafora argia da ikustea nola pasatzen diren hondeamakinak ondare arkeologikoaren gainetik. Horrek ez du zentzurik, baina, finean, erabaki politikoak dira eta kito.

Nola pasa zinen indusketetatik Eguzki Bideoak ekimenera?

Tarte batez kultur ondarea eta turismoa lantzen zituen enpresa batean aritu nintzen lanean, baina utzi nuen beste grina batzuk sentitu nituelako. Enpresa politikoak deitzen ditugunak sortzen ari ziren, oso gertutik ezagutzen nituen. Lana eta eraginkortasun politikoak elkartzeko dituzten figurak ziren eta horretan murgiltzea erabaki nuen.

Eguzki Bideoak kolektiboan hasi nintzen parte hartzen. Oso mugimendu interesgarriak egon ziren 2000. urtearen bueltan. Alde batetik, krisia oraindik ez zen gero izan zena bezain sakona, eta beste aldetik, garai hartan gertatu zen mundu analogikotik digitalerako jauzi erraldoia. 2004an, Iruñeko Udalak Euskal Jai gaztetxea hustu eta eraitsi zuen. Mundu mailan, antiglobalizazioaren zikloaren amaiera iritsi zen. Ondorioz,

Nerea Fillat Oiz

1977, Iruñea

Historian lizentziaduna eta Arkeologian espezializatua. Lana eta eraginkortasun politikoak elkartzeko dituzten enpresen bultzatzailea: Eguzki Bideoak kontraintformazio kolektiboa, La Hormiga Atómica liburu-denda eta orain Katakarak liburu-denda, kantina, eta ideien gunea.



EDUCAR SIN DROGAS

LA FAMILIA Y LA ESCUELA

ANGELA DAVIS

lana eta militantzia elkartu zitezkeela pentsatu genuen. Eguzki Bideoak kolektiboan hiru pertsona hasi ginen lanean, guk "experimento" deitu genion ekimen hartan.

Helburua zein zen?

Ni iritsi nintzenerako haiek hamar bat urteko ibilbidea zuten egina, Eguzki Irratitik abiatuta. Kontrainformazioaren ildoari jarraikiz, ikus-entzunezko kontrainformazioa egitea zen helburua: kolektiboak grabatzea, dokumentalak egitea... Digitalizazioaren etorrerarekin ekoizpena nabarmen azkartu zen. Gari hartan, gainera, jende gehiagorekin elkarlanean aritu ginen, Itoizko urtegiaren edo gaztetxearen hustuketaren kudeaketa informatiboa antolatzen, adibidez. Oso garrantzitsuak izan ziren gatazka horiek bizi genituenontzat. UPNk oso ongi zekien zertan ari zen. Kontrabotere guneak oso ongi ezagutzen zituen eta bazekien zein ondorio ekarriko zituen haien kolpatzeak. Gaztetxea bota zutenean gune horietako asko desartikulatu eta pertsona asko umezurtz gelditu ginen.

Higiezinaren zikloaren argazkia oso laza da. Hala ere, konplizitate eta mugimendu oso interesgarriak sortu ziren ondoren. Hemengo kooperatibetatik, beste hirietako mugimenduen ereduetatik eta gaztetxearen inguruko taldeetatik sortu zen humusa beste proiektu batzuk abiatzeko, horietako bat La Hormiga Atómica liburu-denda. Katakarak bada mugimendu horien jarraipena. Katakarak ezin da ulertu La Hormiga gabe.

Tamainaz gain, zer alde dago bata eta bestearen artean?

Helburua, hirian duen eragina, eragin-kortasuna, lanean ari den jende kopurua, forma juridikoa, proiektuak... Orain gaitasun handiagoa dugu beste hainbat gauzatan eragiteko. Hemengo kantinan eta tabernan elikadura burujabetzaren inguruan egin diren gogoeak oso garrantzitsuak izan dira, esate baterako. Esparru honetan lan egiteko modu berri bat eratu dugu: ekoizleekin konfiantzako harreman zuzenak ezarri, sareak sortu, errespetuzko harremanak bermatu, prezio justuak mantendu, eta batez ere, toki bat zabaldu dugu non produktu horiek kontsumitu daitezkeen modu errazean. Funtsezkoa bide hori sortu izana da. Gauza bera esan gene-



zake liburu-dendaz, ekitaldi aretoaz eta berriki sortu dugun argitaletxeaz.

Garrantzitsuena da ikustea nola Katakarak inguruan sortzen diren harremanetatik beste batzuk sor daitezkeen. Harreman bertutetsuak dira.

Adibidez?

Oso tematua nago ikastetxeetako jantokiaren ereduarekin. Gaur egun zabaldu ta dagoen eredu, catering zerbitzuak irizpide pedagogikorik gabe, ezin dugu onartu gure seme-alabentzat. Hemen eta hau bezalako espazioetan sortzen diren harremanetatik etor daitezke erantzunak. Iruñeko Udalaren Haur Eskoletan hasi dira bertako elikagai ekologikoetan oinarritutako elikadura eredu ezartzen eta hurrengo pausoa izan da eskola guztietara eramatea. Bagoaz aurrera. Ez da guk sortu dugun mugimendua, baina gu prozesu horren parte gara.

Toki fisiko bat izatea noraino da garrantzitsua harreman horiek gauzatzeko?

Ezinbestekoa da. Hala ere, esparru fisiko handia izateak lan handia dakar eta horregatik agian ez ditugu oraindik lortu hasieran genituen helburu batzuk, esate baterako eztabaida politikorako denbora gehiago izatea.

Baina Katakarak ekarpena egin dio Nafarroako aldaketa politikoari...

Bai. Hau izan zen eztabaida saioetan alderdi politiko guztietako kideek parte hartu nahi izan zuten toki bakarra, adibidez. Baina hemendik aurrera ez dago erantzun itxirik, egoera itxita ez dagoelako. Oraindik ez dugu definitu Katakarak zein egiteko izan dezakeen oraingo Iruñean. Sortu zenean argi zegoen hiriak behar zuela esparru bat handia, anitza, baldintzarik gabea, non eztabaida politikoak eta bestelakoak sor zitezkeen, halako jardueretarako udalak ez baitzuen deus eskaintzen. Orain Udalak *civivox* edo kultur zentroetako baldintzak aldatu ditu, denon zorionerako, eta horrekin batera gure egoera ere aldatu da.

Hurrengo hauteskundeetan aldaketak jarraituko duela uste al duzu?

Aldaketa mantenduko da sinesgarria baldin bada. Ez dauka beste deus. Orain ez da bereziki sinesgarria. Ezin dut sinetsi aldaketa gaudenik. Badakit gauza batzuk hobetu direla, eta ongi dago, baina minimoa iruditzen zait. Hau ezin da izan aldaketa politikoak ekarri behar zuten guztia. Hiri hau oraindik oso gogorra da jende askorentzat.



Argialetxea sortu berri du Katakrakek. Zein helbururekin?

Kapitalak gogoko ez dituen harremanik sortzen ez badugu, esan nahi dut, konfiantza eta burkideetasuna helburu dutenak, ez dugu bermatuko bestelako bideak ireki ahal izatea. Baina kontuan hartu behar dugu dena ez dela mikro politikoa, gainazalean ere eztabaidatzea garrantzitsua da eta horregatik zabaldu dugu argialetxea. Beste eztabaiden mailan eragiteko tresna jarri dugu abian. Zein liburu argitaratu nahi dituzun hautatzen duzunean, zein tokitan egon nahi duzun erabakitzen ari zara eta zein ideia hartu nahi dituzun eztabaidetarako abiapuntu gisa.

Zer da feminismoa?

Askatasun handiagoa lortzeko bide bat. Feminismoak proposatzen dituen harremanak gauzatuko balira, mundu askatzaileagoa sortzeko aukera izango genuke. Lana, kontsumoa, egitura guztiak, erabakitze modua, zer den errespetua, zer den garrantzitsua... kontzeptu horiek guztiak sistema patriarkalean oinarrituta daude. Feminismoa da harreman horiek guztiak aldatzeko tresnetako bat, garrantzitsuenetarikoa, nire ustez.

» “Zaintza baloratzen ez den bitartean, ez dago ezer egiterik ez politika instituzionalean, ez kooperatibetan, ez kolektiboetan, ez inon. Zergatik egin behar zaio uko zaintzari? Lantzen ditugun eredu horiek guztiak ez dute balio, horretarako denborarik ez badugu”

» “Iruña oraindik oso gogorra da jende askorentzat”

Une honetan oso tresna eraginkorra ari da izaten, muga asko izanik ere. Horrik izendatutako gauza ugari gizartearen erdigune bilakatzen ari dira gaur egun: bortizkeria; sexu erasoen kontrako jarrerak; erakunde, alderdi politiko eta esparru publikoetan emakumeak egoteko beharra... Hori dena aspalditik aldarrikatzen da feminismitik eta gaur egun hedabideetan ditugu egunero. Aurerrapauso handia da.

Parekotasunaz zer iritzi duzu?

Ez dut uste parekotasuna irtenbide bakarra denik. Ez da askatzeko bidea, baina erabakimen postuetan soilik gizonak egotea okerrago da. Beraz, lan egiteko tresna da. Kontraesan horretan bizi naiz. Bestalde, kuoten bidezko banaketak edo kremailera zerrendak egiten direnean, entzuten da emakume batzuk ez daudela aski prestatuta zenbait kargutara iristeko, baina ez dago argi hor dauden gizonak haiek baino hobekien direnik. Balore patriarkalean oinarritutako pentsamenduaren ondorioa da.

Eta amatasuna? Batzuetan ematen du azalpenak eman behar direla ama izan nahi izateko.

Zainketen krisiaren ondorioa da azalpe-

Alberdi
EUSKAL
ARTISAUTZA

MAKILA

Opari berezietarako
Pertsonalizatuak
Prezio aukera desberdinak

ARGIA

www.argia.eus/denda/makilak
denda@argia.eus | 943 371 545



nak eman behar izatea. Zaintza mahai gainean dugun erronka handi bat da. Hemen bizia antolatuta dagoen bezala, zaila da jendea errespetuz edo egin nahi den bezala zaintzea. Horregatik azken urteotan eztabaida sakonak daude amatasunaren inguruan. Batzuek eredu berriak proposatu dituzte, zainketa naturalen ingurukoak esate baterako, baina ez nago seguru horiek askatzaileagoak direnik, hain zuzen ere komunitateaz eta baldintza materialez mintzatzen ez direlako.

Katakraken amatasunaren inguruan eztabaidatzeko eta pentsatzeko talde txoa sortu genuen iaz, eta *Amatasuna, ekonomia eta komunitatea* hitzaldi sorta antolatu zuen. Ekainean ama eta kartzela gaiaz arituko gara eta hemendik gutxira alokairuzko sabelei buruz.

Etorkizunari begira zer sumatzen duzu?

Ezin dut erantzun borobilik eman. Katakrak eremuan sakondu behar dugula uste dut, ikuspuntu anitza eta kolektibotasuna zentroan jartzen dituen. Gauza gehiago ere badituzte esku artean, baina egunean ordu gehiago beharko nuke. Saiatzen naiz oso muga itxiak jartzen eta hemendik kanpo gauza konkretuei eusten. Hala ere, argi dago militantziaren eredu gizon aske batena dela. Biler guztiak arratsaldeko zortzietan dira, eta nik adibidez, bi ume txiki izanda, as-

Azken hitza: Gizon feministak

"Nik ez dut esaten gizonak ezin daitezkeenik feministak izan, baina zaila egiten zait pentsatzea haiek zein toki izan dezaketen militantzia feministan. Feminismoa landu nahi duten gizonzkoiei esanien nieke, politikoki eraginkorra litzatekeela pauso bat atzera ematea, eta haien artean, gizonen artean, feminismoak planteatzen dizkien aferez hitz egitea. Haien bi-dea eratu behar dute eta horretarako haiek egin behar dute lan".

koz zailagoa daukat dinamika horietan parte hartzea. Hori ikusten ez den arte, zaintza baloratzen ez den bitartean, ez dago ezer egiterik ez politika instituzionalean, ez kooperatibetan, ez kolektiboetan, ez inon. Zergatik egin behar zaio uko zaintzari? Zergatik ez du izan behar eramangarria? Lantzen ditugun eredu horiek guztiak ez dute balio, horretarako denborarik ez badugu. Hori da feminismoaren erronka: erabakitzea zein gauza diren garrantzitsuak eta horiei bere lekua ematea. ■